



## **ARARTEKOAREN AGERRALDIA ENPLEGURAKO, GIZARTE POLITIKETARAKO ETA ETXEBIZITZARAKO BATZORDEAREN AURREAN, LANBIDEK DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN KUDEAKETAN DARABILTZAN IRIZPIDEEI BURUZKO BERE IRITZIA AZALTZEKO**

Lehendakari andrea, parlamentari jaun-andreak.

Niretzat ohorea da berriro ere Enplegurako, Gizarte Politiketarako eta Etxebizitzarako Batzorde honen aurrean agertzea zuen agerpen-eskaerari erantzunez, EH Bildu taldeko Marian Beitialarrangoitia Lizarralde parlamentariari egindako eskaeraren arabera, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketan darabiltzan irizpideei buruzko gure iritzia azaltzeko.

Nire ondoan ditud, oraintxe amaitu dugun agerraldian bezala, Faustino López de Foronda idazkari nagusia, Itziar Barrenkua, Gizarteratze Arloko aholkulari koordinatzailea eta Edorta Córcoles, arlo horretako teknikaria.

Aldez aurretik esan behar da 18/2008 Legeak "Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema" deitzen dion hori baldintzapeko elkartasun eredu dela, hau da, zenbait betekizun edo baldintza betetzearen mende dagoela. Ez da herritartasun ideari lotutako sistema unibertsala, oinarrizko errentarena bezala; hain zuzen ere zenbait kolektibok oinarrizko errenta aldarrikatzen dute biztanle guztientzako segurtasun eta independentzia ekonomikoaren berme gisa. Gure sistema horrelakoa izan da 1989tik, Euskadin Pobreziaren aurkako Borroka Plan Integrala abian jarri zenetik. Bertan prestazioak aurreikusten ziren, gizarte-bazterketaren aurkako borroka, gizarteratzea eta gizarte-kohesioa helburu.

Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrerei buruzko maiatzaren 3ko 2/1990 Legeak hauxe dio zioen azalpenean: *"...gizarteratzeko gutxieneko dirusarrerak ez du gozamendun-sail berri bat sortzeko asmorik, onuradunak ordaina ematera bere burua behartuz, hori Euskadiko gizarte-bizitzan bete-bete sartzeko bideak eman nahi ditu baizik".* (sic)

*[ "...el ingreso mínimo de inserción no pretende crear una nueva clase pasiva, cronificando su situación, sino posibilitar su plena inserción en la vida social de Euskadi a través de la contraprestación a la que se obliga el beneficiario". ]*


Harrezkero gizarte-bazterketaren aurkako borrokari edo gutxieneko diru-sarreren bermeari lotutako prestazio ekonomikoak jaso ahal izateko zenbait baldintza bete



behar izan dira, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoan behar beste denboran bizi izana frogatzea, baliabide nahikorik ez izatea, edo konpromisoa hartzea laneratzeari eta/edo gizarteratzeari lotutako zenbait jarduera egiteko. Nahiz eta kolektibo jakin batzuetan oinarrizko errenta deitutakoa lortzeko eskaria badagoen eta egon den, prestazio horren izaerak alde handia du gutxieneko bermerako prestazio deitzen zaien horiekin, gure autonomia erkidegoan orain arte eman direnak bezalakoekin.

Lehen esan dudanez, Euskadin orain arte izan dugun eredia "baldintzapeko elkartasunaren" eredia da, eta, nahikoa ez bada ere, aurrerapen sozial garrantzitsua ekarri du eta erreferentzia izan da gure inguruan. Baliabideen gutxiegitasuna egiaztatu beharra dauka oinarritzat, eta ezaugarri ditu pertsona edo familia onuradunak jaso litzakeen beste prestazio eta diru-sarrera batzuen osagarritasuna eta subsidiaritasuna, bai eta pertsona eta bizikidetzaren unitateko kideak gizarteratzeko, prestakuntza hartzeko eta laneratzeko prest agertzea ere. Indarra duen prestazioaren izaerak eta erregulazioak eurekin dakarte, beste ondorio batzuen artean, prestazioa sarritan ukatzea eta etetea, askotariko arazoak direla medio, esate baterako errolatze denbora ez betetzeagatik edo baliabideen gutxiegitasuna ez frogatzeagatik, edo, bestela, prestazioa emateak sortzen dituen betebeharrak ez betetzeagatik. Izan ere, oraingo ereduak kontrol eta jarraipen garrantzitsuak eskatzen dizkio Administrazioari. Gainera, haren mugen artean nabarmendu behar da askotan ez dela nahikoa izaten bazterketa egoera larriak arintzeko: etxerik gabeko pertsonak, lekuz aldatuak, kokaguneak, txabolismoa eta abarrekoak. Zaurgarritasun egoerei aurre egiteko eta gizarte-bazterketa prozesu larriagoak saihesteko balio badu ere, askotan ez du lortzen gizarte-bazterketazko muturreko egoerak hobetzerik, ezta haietaraino iristerik ere.


Egungo diru-sarrerak bermatzeko errentak lehen aipatu dugun prestazioa ordeztu zuen: gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera, geroago oinarrizko errenta izendatu zena; izen hori, bestalde, ez zen oso zehatza, ez baitzeturren bat ez oinarrizko errentaren izaerarekin ez helburuarekin. Oinarrizko errentari unibertuala edo herritartasunarena ere deitu zaio. Gizarte Eskubideen Gutunari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legea sortzeko prozesua legegintzako herri-ekimen batek jarri zuen abian 1996. urtean, eta hainbat gorabehera izan zituen. Gutunaren onspenak ez zituen ase legegintzako herri-ekimenaren asmoak, ez baitzen funtsean aldatu prestazio ekonomikoaren izaera. Aurrerapenak izan ziren prestazioaren zenbatekoari edota iraupenari zegokienez, baina, azken finean, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera bera zen. Hain zuzen ere Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrerari buruzko apirilaren 20ko 198/1999 Dekretua aplikatzen jarraitu zen.



Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera arautzen zuten legeak eta dekretuak bizikidetz-unitate ekonomiko independente bat eratzeari eta egoitza-esparru fisiko iraunkor bati lotzen zieten prestazioa ematea. Bizileku egokia eduki beharrak, aipatutako araudi horren aplikazioaren ondorioz, sistematik kanpo uzten zituen pertsona asko, prestazioa eskuratzeko eskatzen ziren baldintzak frogatu ezinik. Arestian esan dugunez, prestazio "baldintzatua" da, eta horregatik administrazioak aztertu egiten du, beste gauza batzuen artean, prestazioa eskatzen duten pertsonen baliabideen gutxiegitasuna, eta kontuan hartzen ditu etxebizitza berean bizi diren kide guztien baliabideak.

Alokairuaren prezio handiengatik, etxebizitza eskuratzeko zailtasunek senideekin edo beste pertsona batzuekin bizitzera bultzatzen zituzten diru-sarrerarik gabe geratutako pertsona asko, eta haiek ezin zuten prestazioa jaso; alegia, etxebizitza alokatzeko diru-sarrerarik ez zeukan pertsona ezin zen prestazioaren onuradun izan, eta familiaren elkartasunera jo behar zuen, gurasoen edo beste senide batzuen etxebizitzara, edo beste pertsona batzuekin partekatu behar zuen etxebizitza. Prestazioa ukatzen zen, beraz, kontuan hartzen zirelako familiako kide guztien edo etxebizitza berean bizi ziren pertsona guztien diru-sarrerak, denek prestaziorako eskubidedun bizikidetz-unitate bakarra osatzen zutelako eta denen artean gaudituz egiten zutelako prestaziorako eskubidea izateko ezarritako baliabideen muga. Laburbilduz, paradoxa hau gertatzen zen: diru-sarrerarik ez zuten eta etxebizitza alokatu ezin zuten pertsonak, familiarekin bizitzera behartuta zeudenek, ezin zuten prestaziorik eskuratu, baina, inguruabar berberekin, etxebizitza baten jabe baziren edo etxebizitza bat alokatzen bazuten prestazioaren onuradun izan zitezkeen.

Ararteko erakundeak 2006an gomendio orokor bat egin zuen: *"Oinarrizko Errentaren Prestazioa arautzen duen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuan aipatzen den bizikidetzako unitate ekonomiko independentea berrikusteko beharra"*. Bertan, eskumena zuen sailari (Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila) proposatu genion berrikusi egin zezala orduan indarra zuen araudiak (apirilaren 20ko 198/1999 Dekretua) bizikidetz-unitate ekonomikoaz zioena, ez baitziren aintzat hartzen zenbait zaurgarritasun-egoera, gure iritziz kontuan hartu beharrekoak zirenak. Gure ustez estaldura eman behar zitzaien hainbat inguruabar aipatu genituen: a) 18 urtetik gorako seme-alaba gazteak, oraindik hezten ari direnak, dituzten guraso bakarreko familiak; b) etxebizitza partekatu eta logela baten prezioa ordaintzen duten pertsonak, denak edo haietako batzuk behar gorrian egonik; c) familia-banaketa edo kolokako lanarekin nahiz osasun txarrarekin zerikusia duen beste arazoren bat jasan dutelako senideen etxera itzuli behar izan duten pertsonak, epe jakin batean lanaren bidezko diru-sarrerarik lortu ezin dutenak (azken babes hori aldi baterako planteatzen zen, eta bazterketa-egoera larriagoei aurrea hartzeko).



Erantsi genuen, beste batzuetan adierazi dugun bezala, etxebizitzaren arazoa arintzeko funtsezkoa iruditzen zitzagula alokatzeko etxebizitza publikoen multzoa handitzen joatea; azalera desberdinetako etxebizitzak, familien beharrian eta tamaina desberdinetara egokitu zitezten. Esan genuen sustapen publikoko etxebizitzetariko asko sartu behar zirela multzo publiko horretan.

Kontua zen, beraz, estaldura maila igotzea, pertsonen etxebizitza-premiekin zerikusia zuten zaugarritasun egoerei zegokienez.

Baina, azken batean, bai lehengo prestazioa, hots, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerera, bai egungo prestazioa, diru-sarrerak bermatzeko errenta, beti egon dira lotuta onuradunek baldintza jakin batzuk betetzeari; besteak beste, norbera etxebizitza batean bizi dela eta bertan bizi diren beste pertsonekin familia-lotura duela frogatu behar da. Baldintza batzuk frogatu eta dokumentazio jakin bat aurkeztu beharrak kanpoan utzi ditu zaugarritasun egoeran zeuden hainbat pertsona (etxebizitza bat eskuratzeko titulu egokirik ez zutenak edo etxerik gabekoak, edo infraetxeetan nahiz pilatuta bizi zirenak...), ezin zutelako aurkeztu behar zen dokumentazioa. Pertsona horiek gizarte laguntza jasotzen zuten eta eguneko zentroen edo udal aterpetxeen, gizarte jantokien eta abarrekoen erabiltzaileak ziren... baina ez ziren diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunak.

Diru-sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, azaroaren 24ko 4/2011 Legearen bidez aldatuak, betekizun berriak ezarri ditu (denbora gehiago erroldatuta, etxebizitza bakoitzeko bizikidetzaren unitate onuradunen kopuruaren mugak, salbuespeneko egoeren iraupen jakina...), eta horiek ere Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistematik baztertzeko dituzte eskatutako baldintzak ezin frogatu dituzten pertsona zaugarriak. Nahiz eta zenbait hobekuntza ekarri dituen, kontuan hartzen baititu lehen estaltzen ez ziren beste zenbait egoera –gorago aipatutako gomendio orokorrean azaldu genituenetarikoa batzuk, esaterako–, oro har baldintzak murriztaileagoak dira eta oraindik ere eskatzen da norberaren etxebizitza eta okupazio-titulua frogatzeko. Gainera, betebeharrak eta konpromiso gehiago ezarri ditu, gizarteratzeko eta laneratzeko tresnekin batera.

Krisi egoerak eta enpleguaren suntsipenak diru-sarrerarik gabe utzi dituzte familia asko, eta ondorioz hazi egin da prestazioetarako eskaeren kopurua. Eusko Jaurlaritzak gizarte-bazterketaren aurkako borrokarako jartzen duen aurrekontuak ere hazten jarraitzen du, aipatutako mugak gorabehera. 18/2008 Legeak ere prestazio ekonomiko berri bat jarri zuen abian, eskubide gisa: Etxebizitzarako



prestazio osagarrian egin du ekarpen ekonomiko handiena Eusko Jaurlaritzak. Desberdintasuna eta gizarte-bazterketa areagotu ahala gizarte arreta handiagoa eskatu zaie administrazio publikoei.

Esan dugunez, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemak hainbat baldintza eta betebeharrak betetzeko eskatzen du. Agerraldi honetako gaiari dagokionez, etxebizitza bat okupatzeko ahalmena ematen duen titulurik eduki gabe etxebizitza batean bizi diren pertsonentzat, EAEko udalerrri batean erroldatuta egotea da diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko bete beharreko lehen baldintza.

Sarritan, gizartetik baztertutako pertsonen zailtasunak aurkitzen dituzte bizi diren udalerrian erroldatzeko. Ildo horretan, araudia zorrotza da eta hala adierazi du askotan Arartekoak, hau esanez: *“Biztanleen eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamenduaren 59.2 artikuluan xedatuta dagoen ahalmenak ez du esan nahi okupazio tituluaren legezkotasuna aztertzeke ahalmena duenik, baizik eta nortasuna eta benetako bizilekua egiaztatzea du helburu. ‘Udalak egiaztatu ahal izango du auzokideek idatziz emandako datuak egiazkoak direla, eta, horretarako, nortasun agiria edo egoitza-txartela, familia liburuxka, etxebizitza okupatzea legitimatzen duen titulua edo horien antzeko beste agiri batzuk exijitu ahal izango ditu’”. Titulu edo agiririk ezean, udalek badute eskumena beste bide batzuetatik egiaztatzeke pertsona benetan bizi dela adierazitako helbidean; adibidez, udaltzainen txostenen bitartez. Baina inola ere ez da inguruabar hori izan behar erroldatzea ukatzeko arrazoa. Hitz batez, udalen eskumenak helburutzat du egiaztatzea pertsona benetan bizi dela alta eskatu duen helbidean.*

Duela gutxi, Arartekoaren 2013ko irailaren 6ko ebazpenean, aurrekoen ildo beretik hauxe adierazi da:

*“Hala, Tokiko Erakundearen Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiko 59.2 artikulua (ekainaren 11ko 1690/1986 ED) xedatzen duen egiaztapen ahalmenak udala ez du gaitzen bizilekuaren errealitatea egiaztatzean ez dautzan baldintzak egiaztatu eta eskatzeko edo, bestela esanda, agindutako eginkizunen gehiegikeria baten aurrean egongo ginateke, udal jarduerak pertsona baten benetako bizilekua egiaztatu behar ez duenean.*

**INE, Instituto Nacional de Estadística erakundearen 1997ko uztailaren 4ko ebazpenak kontu hori argitzen du honako hau xedatzerakoan (3. artikulua):**  
*‘En consecuencia, tan pronto como el gestor municipal adquiera la convicción de que los datos que constan en la inscripción padronal se ajustan a la*



***realidad, deja de estar facultado para pedir al vecino ulteriores justificantes que acrediten aquel hecho.***

***Y, en concreto, la posibilidad de que el Ayuntamiento solicite del vecino 'el título que legitime la ocupación de la vivienda' (artículo 59.2 del Reglamento) no atribuye a las Administraciones locales ninguna competencia para juzgar cuestiones de propiedad, de arrendamientos urbanos o, en general, de naturaleza jurídico-privada, sino que tiene por única finalidad servir de elemento de prueba para acreditar que, efectivamente, el vecino habita en el domicilio que ha indicado''.***

Lantzen ari garen gaian erabakigarria den beste alderdia honakoa da: diru-sarrerak bermatzeko errenta erregulatzeko duen araudiko "etxebizitza edo bizitoki" kontzeptua.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta izeneko prestazioa garatzen duen dekretuak (maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak) zioen azalpenean aipatzen duenez, etxebizitza edo bizitokiaren erregulazioa, 6. artikuluan bilduta dagoena, "erreferentziatzeko elementua da ez soilik diru-sarrerak bermatzeko errentarentzat, baizik eta sistema osoarentzat".

Aipatutako dekretuaren 6. artikulua, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 10. artikulua garatzen duen manuak, bi etxebizitza edo bizitoki mota bereizten ditu:

Lehen paragrafoan, pertsona bat edo gehiago independienteki eta "agintaritza edo araubide erkide baten pean egon gabe" bizi diren etxebizitza edo bizitokiak xedatzen ditu. Etxebizitza edo bizitoki horiek bizikidetzako unitate batek edo batzuek okupa ditzakete. Bizikidetzako unitate batzuk etxebizitza berean bizi direnean, zenbait kontratu-egoera egon daitezkeela xedatzen du: azpierrementua, ostatatzeke zein logelak alokatzeko kontratua, logelarako eskubidea eta errentamendu partekatua.

Nolanahi ere, arauditik ondorioztatzen da etxebizitza okupatzeko eta gozatzeko titulu juridiko baliodun bat egon behar dela.

Halaber, bigarren paragrafoan, bizileku kolektiboko esparru fisiko bat egoteko aukera xedatzen du: turismoko establezimenduak edo aldi baterako harrera-zentroak (harrera-pisuak, bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako abegi-zentroak, baita etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako abegi-zentroak eta emakumeentzako beste harrera-zentro batzuk ere...).



Gainera, aipatutako dekretuaren 29. artikulua ezartzen du honako agiri hauek entregatu beharko direla diru-sarrerak bermatzeko errenta izeneko prestazioaren eskaerarekin batera, beharrezkoak baitira 9. artikuluan araututako eskakizunak betetzeko:

*"g) Dekretu honen 6.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan, zirkunstantzia espezifikoko bakoitza egiaztatzen duen agiri eguneratua, hala nola:*

- Turismo-ostatuan egon izanaren faktura.*
- Harrera-zentro batean bizi dela egiaztatzeko agiri bat.*
- Indarrean dagoen azpierreantako, baterako errentamenduko, ostatu-hartzeko edo gelak alokatzeko kontratua, dagozkion ordainagiriekin batera.*
- Indarrean dagoen errentamendu-kontratua, dagozkion ordainagiriekin batera".*

Ulertu behar da agiri horiek okupaziorako gaitzen duen titulu bat existitzen dela egiaztatzeko asmoz eskatzen direla.

Honakoa izan da administrazioak etxebizitza edo bizitoki beregain kontzeptuari buruz egin duen interpretazioa, "agintaritza edo araubide erkide" baten menpe ez egoteari dagokionez, 1/99 Zirkularretik Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailak emandakoa. Zirkular horrek Gizarteratzeko Gutxienezko Dirusarrera GGD/IMI eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak GLL/AES Aplikatzeko Eskuliburua zabaltzen du. Horrela zioen:

*"b) ...la utilización de este marco físico [de residencia no colectiva (vivienda o alojamiento)] debe realizarse sin que las personas que conviven en él se vean sometidas a una autoridad o régimen común.*

*El criterio de no sometimiento a una autoridad o régimen común implica que se cumpla cualquier de las dos circunstancias siguientes:*

*\* La vivienda o alojamiento es de la propiedad de uno o más miembros de la UECI.*

*\* La vivienda o alojamiento ha sido arrendado o cedido para uso personal a uno o más miembros de la UECI para uso residencial permanente.*

*Como es lógico, a efectos de consideración de la UECI, se tendrá en estos casos en cuenta a todas las personas residentes en la vivienda".*

Lanbidek gaur egun diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren inguruan dituen interpretazio-irizpideetan, 2014ko urtarrilekoetan, hauxe adierazten da bizitokiei buruzko azalpenen gaineko atalean: "no se puede cobrar RGI estando como okupa en una vivienda". (sic)





Interpretazio-irizpide horiek definitzerakoan, Arartekoak beti eskatu du ezegonkortasun handieneko egoeran dauden pertsonen arreta emateko onuragarriagoak diren interpretazioak bilatzeko, logikoki beti arau-esparrua errespetatuz.

Aipatu behar da Lanbidek udal batzuek euren gizarte zerbitzuen bidez eskaintzen duten gizarte-eroldaren edo errola faltsuaren aukera onartu duela normalean udalerrian bizi izanda eta/edo errolatzeko bizigarritasun-baimena duen etxerik ez edukita bizitegi-bazterketako egoera larrian dauden pertsonen erantzuna emateko. Bestalde, Lanbidek orobat onartzen du udal batzuek erabileran lagatako etxebizitzetan (horietan, pertsona batzuk gastuak izan ezik ezer ordaindu gabe bizi daitezke eta errolatzeko eskubidea daukate) diru-sarrerak bermatzeko errenta kobra daitekeela.

Nolanahi ere, pertsona horien gizarte zerbitzuen sistemaren esku-hartze soziala jasotzen ari dira. Pertsona horien gizarteratzeko ibilbide bati jarraitzen diote eta agente publiko eta pribatu baten laguntza daukate. Programa horiei jarraipena egiten diete, eta bideratzen diren jardunak gizarte zerbitzuen sistemak eta diru-sarrerak bermatzeko sistemak koordinatzen dituzte aldez aurretik. Horrek foru-aldundien eta gizarte-bazterkeriaren arloan lan egiten duten gizarte-erakundeen lankidetzara eskatzen du.

Arartekoaren ustez, komenigarria litzateke dagoen ereduari buruz, sistematik kanpo geratzen diren ahultasun-egoerei buruz eta gizarte-bazterkeriaren aurkako eta lan-aktibazioaren aldeko borrokan dituzten ondorioei buruz ebaluazio bat, analisi bat eta eztabaida handiago bat egotea. Administrazioen arteko eta administrazioen barruko koordinazioa hobetu beharko litzateke gizarte- eta etxebizitza-politiken arloan, baita gizarte-erakundeekiko lankidetzara ere, ahultasun-egoeran dauden pertsona guztiek estaldura eduki dezaten. Zehazki, talde ahulenetan, hala nola etxebizitzarik ez duten pertsonengan, duen eragina baloratu beharko litzateke. Etxebizitzarik ez daukaten pertsonak gainerako betekizunak betez gero diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun izatea ahalbidetzen duen prozedura bat xedatu beharko litzateke.

Horrela, bizilekurik ez daukaten pertsonen alokairua ordaintzeko baliabide nahikoak dituztela aldez aurretik egiaztatu gabe (gaur egun ez bezala) babes ofizialeko etxebizitza baterako sarbidea eskatu ahal izateko prozedurak eta protokoloak ezarri beharko lirateke. Urteko diru-sarreraren gutxienezko mugaz ari gara, Etxebide Etxebizitza Erregistro Publikoan sartzeko 3.000 euroko kopurua egiaztatzea eskatzen baita. Proposamen hori txostenean jasotako gomendioen artean dago





*“Gazteentzako etxebizitza politika publikoak EAEn “25. Gomendia: Alokairuaren modalitateko etxebizitza babestua eskuratzeko, gutxienezko diru-sarrerak egiaztatu behar direla dioen baldintza kendu behar da”.* Aztertu beharreko beste aukera batzuen artean, gizarte-txosten bat eska liteke, edo diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaera izapidetzeko onartuta egon dadila.

Era berean, laguntza-baliabideak eta etxerik gabeko pertsonekin lotutako esku-hartze soziala hobetzeko neurriak abiarazi behar dira. Gure administrazioak ahalegin nabarmena egiten ari dira krisi-une hauetan, baina gizarte-premiak ikaragarriak dira. Pertsona horiei bizitza autonomia izateko aukera ematen dien gizarteratzeko ibilbide bat ahalbidetu beharko litzateke; kasu batzuetan gizarte zerbitzuen sistemaren eta diru-sarrerak bermatzeko sistemaren arteko zubiak eraiki diren arren, prozedurak azkarragoa izan beharko luke. Gainera, infraetxeari, asentatzeari eta etxebizitzaren gainokupazioari aurre egiteko programa zehatzak behar dira.

Alegia, agente publikoen eta pribatuen arteko koordinazioa eta lankidetzak hobetu behar da gizarte-bazterkeriako prozesuetan dauden pertsonen arretari dagokionez.

Bestalde, ez da ahaztu behar Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema pertsona eta familia askoren bazterkeria larriko egoerak eta hauren pobrezia areagotzea saihesten ari dela. Hainbatetan adierazi dugunez, oso era positiboan baloratzen dugu gaur egungo sistema, pertsonen bizitzan eta euskal gizartean dituen eraginengatik. Izan ere, gizarte-desberdintasunaren eta txirotasunaren hazkundeak gizarte-desintegrazioa baino ezin dute ekarri, baita biztanle gehiago barne hartzen dituen kaos edo anabasa humanitarioa ere.

Zentzu horretan, jakinarazi nahi dizuet ofiziozko jardun bat hasiko dugula etxebizitza-politiken eta gizarte-politiken artean dagoen koordinazioa eta bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonen arreta emateko neurriak aztertze asmoz. Gure helburua taldearentzako arreta hobetzen duten proposamenak egitea da, esaterako lehen aipatu duguna, Etxebide Babes Ofizialeko Etxebizitzaren Erregistroan sartzeko diru-sarreraren muga ezabatzeari buruzkoa.

Laburbilduz, nire iritzian, nabarmendu beharreko kontua ez da okupek diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea duten ala ez (ezetza ondorioztatzen da, nik uste, oraingo Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren erregulaziotik), baizik eta sistema horrek zer-nolako erantzuna ematen dien gizartean larriki baztertuta dauden pertsona askoren arazoei.



Lehenago esan dudanez, eskakizun eta betebeharrak batzuk betetzeak baldintzatzen du gure sistema, eta hori ondo iruditzen zaigu, baina kanpoan uzten dituzten gizartearen egoerarik txarrean dauden pertsonetako batzuk: txaboletan bizi direnak, etxerik gabekoak edo etxebizitza edo bizileku bat izateko titulu juridiko baliogabeak ez dutenak. Nire aburuz –arestian aipatu dudan moduan– kasu batzuetan egungo araudiak barne har lezake egoera horietakoren bat, interpretazio-irizpide zabalak erabiliz eta zenbait konpromiso eta baldintza betez. Hala ere, oraindik ere badira gure sistemak erantzunik emango ez dien pertsonak eta taldeak.

Horregatik, gure botere publikoek gizartearen okerren bizi diren pertsonak zaindu behar dituztela ulertuta, pentsa daiteke ea aukerarik badagoen sistema hori gaur egun diseinatuta dagoen moduan berraztertzeko, behar horietakoren bat bere baitan har dezan edo egoera horietaz Gizarte Zerbitzuen Sistemaren bitartez eta beste sistema publiko batzuen bitartez ardura daitezen.

Mila esker zuen arretagatik, eta jakin ezazue zuen esanetara nagoela egin nahi dituzuen galderei erantzuteko.

Eskerrik asko.

Gasteizen, 2014ko martxoaren 10a